








ZERK EGITEN DU DESBERDIN ELeVATE?

Ez da soilik berdintasuna sustatzeko proiektu bat.

Politiken Esperimentazioko ekimen gisa ulertzen da: LH berdean eta STEM arloan dauden genero-arrakalak aztertzen ditu, irtenbide berritzaileak diseinatu eta herrialde desberdinetako testuinguru lokal eta erregionaletan probatzen ditu, eredu transferigarriak eta eragin iraunkor eta eskalagarria sortzeko LHn eta hezkuntza-politikan.

Women in GreenTech: azterketatik inpaktura

-  Genero-arrakalen **azterketa**
-  Prestakuntza-eredu inklusiboen **diseinua**
-  LHko pilotuak eta **esperimentazioa**
Tokikoa → Europearra 
-  Hezkuntza-politikan eta sistemetan **inpaktua**

ERAKUNDE PARTE-HARTZAILEAK



KONTAKTUA



jrosel@mlakoop.com
edelacruz@zubigune.com
(Gaiak: ELeVATE)

Informazio gehiago proiektuaren webgunean



SCAN ME



ELeVATE

Emakumeen talentua net-zero teknologietan sustatzen

ELeVATEk emakumeak, gazteak zein helduak, etorkizuneko eraikuntza definitzen duten net-zero teknologietan trebatzera eta profesionalki garatzera bultzatzen ditu, trantsizio berde eta digital bikoitzaren testuinguruan.



Proiektua: 101196092 – ELeVATE – ERASMUS-EDU-2024-POL-EXP



ZER DA ELeVATE?

ELeVATE – Empowering Women in Net-Zero Technologies Erasmus+ programako Politiken Esperimentazioko Europako proiektu bat da. Helburua da, Lanbide Heziketaren (LH) bidez, emakumeen parte-hartzea sustatzea eraikuntza jasangarria bultzatzen duten **net-zero teknologietan**, bereziki eraikinetarako energia adimenduneko sistemetan (SEB).

ZERGATIK DA BEHARREZKOA?

ELeVATEk erronka nagusi bati heltzen dio: **emakumeen ordezkartza urria LHn, STEM arloari lotuta** eta bereziki kualifikazio berdeetan, ekonomia deskarbonizatu eta zirkularrerako trantsizioa gehien bultzatzen dutenetan (eraikuntza eraginkorra eta jasangarria, besteak beste). Sektore horietan emakumeen parte-hartzea oso baxua da, nahiz eta aniztasun handia, hazkunde iraunkorra eta enplegu-eskari handia izan.

Women in GreenTech: EUROPAKO LEHENTASUNA

Trantsizio digital eta berde bikoitzak Europako lan-merkatuetan eragiten duen eraldaketaren aurrean, LH tresna erabakigarria bihurtzen da. Erasmus+ programak **LHn ikuspegi berrien esperimentazioa** sustatzen du, ekonomia jasangarriko sektore estrategikoetan **genero-arrakala ixteko**.



NOLA GARATZEN DA ELeVATE?

HELBURUAK

- Emakume gehiago LH berdera eta STEMera **erakartzea**.
- Sarbide-, iraunkortasun- eta garapen profesionaleko oztupoak **murriztea**.
- Sektorerako programa inklusiboak **diseinatzea**.
- Mentoretza eta emakume erreferenteak **sustatzea**.
- Eragileen arteko lankidetzak **bultzatzea**.

HARTZAILEAK

- LH STEMean interesa duten **emakumezko ikasleak**.
- **LH zentroak eta hezkuntza-agintariak**.
- Funtsezko sektoreetako **industria eta I+C**: *Energia berriztagarriak, energia-eraginkortasuna, eraikinen automatizazioa, instalazioak eta sistemak, mugikortasun elektrikoa, ekonomia zirkularra, etab.*
- **Berdintasun eta inklusio eragileak**.
- Tokiko eta eskualdeko **administrazioak**.

IKUSPEGIA ETA GARAPENA

ELeVATEk lankidetzak-ikuspegia hartzen du, genero-arrakalen **analisiak**, genero-ikuspegiaren hezkuntza-irtenbideen **diseinua** eta haien **esperimentazioa** oinarri hartuta, proiektutik harago **eragin** iraunkorra sortzeko.

EUROPAKO PARTZUERGIA

ELeVATEk hezkuntza, industria eta agintarietako 10 erakundek osatutako **Europako partzuergo multidiziplinarra** biltzen du, Grezia, Espainia, Italia, Alemania eta Ipar Mazedoniatik.

Trantsizio BERDEA eta DIGITALAK talentu GUZTIA behar du

ELeVATEk honako hauei laguntzen die:

- Eraikuntzarako net-zero teknologietan emakumeen parte-hartzea **handitzea**.
- Enpresetan eta erakundeetan talentua **dibertsifikatzea**.
- LH eredu inklusiboagoak eta jasangarriagoak **sustatzea**.
- Hezkuntza-politiketara eta sistemetara **irtenbide** transferigarriak **sortzea**.

Zentro, enpresa, eragile eta administrazioei gonbita egiten diegu aldaketaren parte izatera

(Informazio eta kontaktu gehiago kontrazalean)